

ELGOIBAR



Euskaraldiaren Elgoibarko hamaikakoa larunbatean Aita Agirre kulturgunean egin zen aurkezpen ekitaldian. **BARREN**

Herrian Euskaraldiko erreferentea izango den 11koa aurkeztu dute

Aurkezpenarekin euskara sustatzeko 2025eko maiatzean egingo den ariketa soziala berotzen hasi dira Elgoibarren

JABI LEON

ELGOIBAR. Euskara gehiago egin eta entzuteko helburua duen Euskaraldia ariketa sozialaren laugarren edizioa 2025eko maiatzaren 15etik 30era bitartean ospatuko da Euskal Herri osoan zehar.

Beraz, urte erdia falta da oraindik IV. Euskaraldia ailegatzeko baina, hala ere, Elgoibarren dagoneko hasi dira gure hizkuntza ohi-turen gaineko gogoeta egitera gonbidatzen gaituen ariketa soziala

berotzen. Horretarako Euskaraldiak irauten duen bitartean Elgoibarren erreferente izango den hamaikakoa aurkeztu zuten joan den larunbatean Aita Agirre kulturgunean egin zen ekitaldi batean.

Euskaraldiaren Elgoibarko 11koa ondorengo herritarrek osatuko dute: Maddi Arrieta (ingeniaritza ikaslea), Imanol Arantzamendi (euskal filologiako ikaslea, dantzaria eta euskal dantzako irakaslea); Jone Arriola (zinemagilea eta gidoilaria), Mikel Olaizola (irakaslea), Iñigo Lariz (kirolaria), Zelmar Etxegoien (Uruguain jaiotako Informatikan Doktore euskalduna), Leire Leiaristi (industria munduko ingeniaria), Deñe Zabalo (euskara du ogibide), Jose Luis Aldalur (Jubilatuena elkarteak kidea), Juan

Mari Martinez (erretiroa hartu duenetik euskara ikasi eta euskaraz bizitzeko erronka ezarri dio bere buruari) eta Rosa Mata (euskaltzale sutsua).

Euskaraldiaren «beharra»

Hamaikakoaren aurkezpenean Euskaraldiaren «beharra» azpimarratu zuten eragileetako ordekariek. Behar hori azaltzeko 5 arrazoi eman zituzten: «euskara eta euskararen erabilera agenda eta iritzi publikoaren lehen lerroan jartzen duelako, kontzientzia linguistikotant eragiten duelako, hizkuntza ohitura batzuk zalantzan jartzen dituelako, erabilera areagotzeko ariketa nazionala delako; eta Euskaraldia herrigintza, elkarbizitza eta justizia soziala delako».

MUTRIKU

2024ko Iñigo Andonegi argazki lehiaketara aurkeztutako lanekin osatutako erakusketa gaur irekiko dute Zabielen

J. LEON

MUTRIKU. Mutrikuarrek 2024ko Iñigo Andonegi argazki lehiaketara aurkeztutako lanekin osatutako erakusketa ikusteko aukera izango dute gaurtik hilaren 13ra bitartean Zabel kultur etxean. Astegunetan 17:00etatik 19:00etara bitartean bisitatu ahalko da eta asteburu eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara arte.

Mutrikuko Udalak jakinarazi duenez azaroaren 24an bukatu zen lanak jasotzeko epea eta 42 partehartzailearen 112 lan jaso

dira. Gainera «kalitate handiko irudi asko jaso direla eta, benetan zaila izan da erakusketan jarri beharreko 70 argazkiak aukeratzeko», azpimarratu dute.

Edonola ere, lehiaketaren epaimahaiak 12 argazki sarituko ditu eta argazki bakoitzaren egileak 90 euroko saria jasoko du.

Saritutako argazkiekin Udalak 2025eko egutegia argitaratuko du. Hori bai, egutegiaren azalerako argazkia bozketa bidez aukeratu da. Herritarrek horretarako botoa eman ahalko dute gaur irekiko den erakusketa zabalik dagoen bitartean.

DEBA

El grupo organizador de la cabalgata de los Reyes Magos solicita personas voluntarias

J. L.

DEBA. Debako Kabalgata taldea, el grupo que se encarga de organizar la cabalgata de los Reyes Magos en Deba, necesita personas voluntarias para poder llevar a cabo el evento del próximo día 5 de enero.

Debako Kabalgata taldea solicita la colaboración de la ciudadanía para diversas tareas de organización, decoración y cuidado «el día de la cabalgata».

Concretamente, el colectivo necesita personas voluntarias «para participar como paje y para labores de decoración, desmontaje o vigilancia organizativa en el recorrido».

La organización de la cabalgata anima a las y los debarras a colaborar. Las personas interesadas pueden enviar un correo electrónico a la dirección erregabalgatadeba@gmail.com «indicando nombre, apellidos y número de contacto».

ELGOIBAR-DEBA



Elgoibar y Deba rinden homenaje a sus donantes destacados de 2024

Las delegaciones que la asociación Donantes de Sangre tiene en Elgoibar y Deba celebraron el fin de semana los actos en reconocimiento a las personas de sus respectivos municipios que han alcanzado una cifra destacada de donaciones este último año. Los elgoibartarras que recibieron el diploma y la insignia de Donantes de Sangre (foto izquierda) fueron Andoni Arruabarrena, Iván Fernández, Iñigo Loyola, Ana María Martín, Manuel San Martín, Luis Santamaría, Ander Soraluze y Mikel Uribealzo (25 donaciones), Jesús María Espilla e Iñigo Oñederra (50), María Carmen Mella y María Concepción Prieto (60) y José Ignacio Jauregi (75); mientras que en Deba las personas homenajeadas fueron Iñigo Aizpurua y Andima Egaña (25 donaciones), Oihana Sáez y Matilde Soto (40) y Ángel Amilleta (75 donaciones).



DV